

Inguruko herriak ebakuatzea gomendatu du geologo batek

Antonio Casas geologo eta Zaragozako Unibertsitateko irakaslearen hitzetan, Esa urtegiaren presa arriskuan dago, handitze lanen eraginez "igotzen" ari baita.

| JON TORNER ZABALA |

DANI BLANCO



PRESAZ BEHERAKO herritarrak eba-kuatzea komeni dela esan du, Antonio Casas geologoak, Aragoiko Gorteetan eginiko agerraldian: "Nire iritziz, egoera ez da arrisku-tua, dramatikoa baizik, aurretik ere higadurak sufritu dituzten materia-lak erabiltzen ari direlako".

Juan Luis Sanchez de Muniain Nafarroako Gobernuak bozerama-leak azaldu duenez, Ebroko Konfe-derazio Hidrografikoek egindako txostenek ez dute kezkatzeko moti-borik ematen: "Casasen sinesgarri-tasuna auzitan jarri gabe, gogoratu behar dugu tankerako alarma piztu zuela Itoizko presaren balizko higa-duren aurrean", adierazi du.

Irakaslearen hitzetan, ordea, presa "igotzen" ari dela diote aipatu txostenek: "Presa arriskuan dago. Ez diot nik, Konfederazioaren txos-tenek baizik. Ez dut esaten Zango-za oraintxe ebakatu behar denik, baina simulakroak egiten hasi beharko lirateke".

Zentzu horretan, Yesa+No / Lanak Gelditu koordinakundeak

eta Angel Navallas Zangozako alka-teak egoeraren "larritasunaz" ohar-tarazi dute. Koordinakundeko kide Iker Aramendiak handitze lanak geratu, uraren maila jaitsi, obren zuzendaritza aldatu eta ikerketa independentea egiteko eskatu du. Bildu, Aralar, I-E eta Geroa Bai alderdiek ere handitze lanek "zalan-tzak" sortzen dituztela diote. Aitzi-tik, Nafarroako Gobernuaren hitzak bere eginez, alarmarako

motiborik ez dagoela esan du PSNk.

Presaz beherakoek ez ezik, urak hartuko dituen lurretan –Aragoin– bizi direnek ere proiektua kritikatu dute. Obren aurkako erresistentzia-ren ikur bilakatu den Artiedako alka-te Javier Jiménezek hain-bat nekazariri urtegiaren alboan zituzten lurak gogoz kontra kendu diz-kietela salatu du. ■



MARCOS
okindegia

**Benetako
aitzinako ogia**

☎ 943 450 966

Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)



LUAarkitektoak
hirigintza
hiringintza aholkularitza
udal planak
urbanizazioak
perifazioak
balorazioak
etxebizitzaren proiektuak
birgaitzeak
barne diseinua...

Rio Arga Kalea 28, 31014 Iruña

Tel 948 13 26 97
lua@luark.com